



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA



ONGI ETORRI
EUSKARAREN HERRIRA!
BIENVENIDA Y BIENVENIDO AL PAIS DEL EUSKARA
WELCOME TO THE COUNTRY OF EUSKARA
BIENVENUS AU PAYS DU BASQUE

Aukeratu hobekien datorkizun egun eta ordutegia:

- Martxoak 12, 09:30ean
- Martxoak 26, 15:00etan

Iraupena: 45´ - ordu 1

Lekua: Udaletxea (sarrera Elkano kaletik)

Herritar agurgarria:

Honen bidez aurkeztu nahi dizugu **ONGI ETORRI EUSKARAREN HERRIRA!** egitasmo berria.

ONGI ETORRI EUSKARAREN HERRIRA! lelo hartuta, turismoan euskarari dagokion balioa emateko kanpaina egingo da Urola Kostan Aste Santutik aurrera.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Urola Kostako Udal Elkarteak eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak elkarlanean sustatu dute Aia, Orio, Zarautz, Getaria eta Zumaian abiatuko den egitasmoa.

Kanpainaren helburu nagusiak hauek dira:

- Gure herrira datozen bisitariei euskararen gaineko ikuspegi erakargarri, moderno eta bizia helaraztea.
- Bisitariak herri euskaldun batean egotearen esperientziaz gozatzea.

Zuk eskaintzen duzun zerbitzua herriaren bizitzaren zati da, eta baita erakusleho ere, hein handi batean. Horregatik, bidelagun nahi zaitugu egitasmo honetan. Zure parte hartzea eta inplikazioa oso garrantzitsuak izango dira.

Kanpainaren berri zuzenean emateko eta zuk joka dezakezun paperaz hitz egiteko saioa antolatu dugu. Hori horrela, **atsegin handiz gonbidatu nahi zaitugu ONGI ETORRI EUSKARAREN HERRIRA! kanpainaren informazio-saioa.**

Bertaratzen zaretenoi kanpainan erabiltzeko materiala emango zaizue.

Eskertuko dizugu aldez aurretik esatea etorriko zaren.

Izena emateko: Turismo Bulegoa/infoturismo@getaria.eus/ 943140957

Getarian, 2020ko otsailaren 15ean

